

## **26. ORDENANTZA FISKALA, BEHIN-BEHINEKO INSTALAZIO EDO SALMENTA-POSTU IBILTARIAK ERABILIZ UDAL JABARI PUBLIKOA OKUPATZEAREN GAINEKO TASAK ARAUTZEN DITUENA**

### **I. XEDAPEN OROKORRAK**

#### **1. ARTIKULUA**

Erandioko Udalak, behin-behineko instalazio edo salmenta-postu ibiltariak erabiliz udal jabari publikoa okupatzearen gaineko tasak ezarri eta eskatuko ditu Ordenantza honetan xedatuaren arabera eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorritz. Ordenantzaren eranskinean jasotzen dira aplikagarri diren tarifak.

#### **2. ARTIKULUA**

Ordenantza hau udal mugarte osoan aplikatuko da.

### **II. ZERGAGAIA**

#### **3. ARTIKULUA**

Behin-behineko instalazio edo salmenta-postu ibiltariak jarrita udal jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendua da tasa honen zergapeko egitatea.

### **III. SUBJEKTU PASIBOA**

#### **4. ARTIKULUA**

Ondorengo hauek ditugu, zergadun modura, tasaren subjektu pasibo: pertsona fisikoak, pertsona juridikoak eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 34. eta 35. artikuluetan aipatutako erakundeak, baldin eta behin-behineko postuak jarri eta udal jabari publikoaren erabilera edo aprobetxamendu berezia egiten badute.

### **IV. ZERGA OINARRIA**

#### **5. ARTIKULUA**

Tasaren zerga-oinarria izango da udalerraren jabari publikoaren bakarreko erabilera edo aprobetxamendu berezia gauzatzeko unitate bakoitza, Eranskinean adierazitako modura.

### **V. KUOTA**

#### **6. ARTIKULUA**

1. Eranskinean adierazitako tarifak aplikatuz zehaztuko da zerga kuota.

2. Bakarreko erabilerak edo aprobetxamendu bereziak udalerriko jabari publikoko ondasunak suntsitzea edo narriatzea badakar berekin, onuradunak haiek berreraikitzeke edo konpontzeko gastu osoa ordaindu beharko du eta zenbatekoa lanei ekin aurretik jarri beharko du; horrez gainera



tasa ordaindu beharko du.

Kalteak konponezinak badira, Udalak kalte-ordaina jasoko du. Kalte-ordainaren zenbatekoa suntsitutako ondasunen balioa edo narriadurari dagokiona izango da.

Udalak ezin ditu barkatu idatz-zati honetan adierazitako kalte-ordainak eta itzulketak, ez osorik, ez zati bat.

## **VI. SORTZAPENA ETA ZERGALDIA**

### **7. ARTIKULUA**

1.- Behin-behineko instalazio edo salmenta-postu ibiltariak jarri eta udal jabari publikoaren aprobetxamenduagatik ordaindu beharreko tasa zergapeko egitatearen arabera sortuko da: batzuetan, bakarreko erabilera zein aprobetxamendu berezia hasten denean, eta dagokion zenbateko osoa edo zati bat aurretiaz ordaintzeko eska daiteke kasu horietan; besteetan, espedienteari zein jarduketari hasiera ematen dion eskabidea aurkezten denean, eta ez da jarduketa gauzatuko ez espedientea tramitatuko dagokion ordainketa egin gabe.

2.- Tasa aldiro sortzekoa denean, urtarrilaren batean sortuko da, urtero, eta zergaldiak urte osoa hartuko du, bakarreko erabilera edo aprobetxamendu bereziaren hasieran edo amaieran izan ezik. Halakoetan, zergaldia egokitu egingo da kuota hainbanatuaz, Eranskinean adierazitakoaren arabera.

3.- Subjektu pasiboari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik jabaritzza publikoaren aprobetxamendua ezin baliatu edo garatu bada, tasaren zenbatekoa itzuli egingo da.

## **VII. LIKIDAZIOA ETA SARRERA**

### **8. ARTIKULUA**

Kontzeptu bakoitzari dagokion likidazioa egingo du Udalak eta Eranskinean adierazitako araei jarraituz egingo da bidezko den ordainketa.

## **VIII. TASEN KUDEAKETA**

### **9. ARTIKULUA**

Ordenantza honetan araututako tasen kudeaketa, likidazioa, bilketa eta ikuskaritzari dagokionez, Lurralde Historikoko Foru Arau Orokorrak eta Ordenantza Fiskal Orokorrak ezarritakoa aplikatuko da.

### **10. ARTIKULUA**

Zergen arloko arau-hausteak, haien sailkapena eta dagozkien zehapenak direla eta, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta Ordenantza Fiskal Orokorrean xedatutakoa beteko da.

## **IX. XEDAPEN GEHIGARRIA**

Aurrekontuei buruzko Foru Arauen bidez zein zuzenean aplikagarri diren bestelako arau edo

xedapenen bidez Tasaren araubidean gertatzen diren aldaketek Ordenantza iscal honen aldaketa eragingo dute, besterik gabe.

## X. AZKEN XEDAPENA

Honako Ordenantza hau 2008ko urriaren 29an izandako Osoko Bilkuran aldatu du Udalbatza Osoak, eta 2009ko urtarrilaren lehenetik sortuko ditu ondorioak, harik eta aldatzea edo indargabetzea erabaki arte. Ordenantza fiskal honen zati bat aldatuz gero, aldatu gabeko gainontzeko artikuluek indarrean iraungo dute.

### ERANSKINA

#### TARIFAK

#### I – JAIETAN, FERIETAN, ARTISAUTZA AZOKETAN ETA BESTELAKO OSPAKIZUNETAN JARTZEN DIREN INSTALAZIOAK ETA SALTOKIAK

- 1.- Tabernak, kafetegiak eta antzekoak:  
Metro karratu edo zatiko eta hilabeteko edo zatiko .....4,80 €
- 2.- Txurrotegiak, txokolategiak eta ore frijituko salmahaiak:  
Metro karratu edo zatiko eta hilabeteko edo zatiko .....28,55 €
- 3.- Pastel, gozoki, fruitu siku, patata frijitu, bisuteria, jostailu, liburu eta antzekoen saltokiak:  
Metro karratu edo zatiko eta hilabeteko edo zatiko .....46,25 €
- 4.- Lore, gaztaina eta izozkien saltokiak:  
Metro karratu edo zatiko eta hilabeteko edo zatiko .....46,25 €
- 5.- Animalia, zigilu, txanpon eta antzekoen saltokiak:  
Metro karratu edo zatiko eta hilabeteko edo zatiko .....46,25 €
- 6.- Tiro-txosnak, eta bestelako jokolekuak:  
Metro karratu edo zatiko eta hilabeteko edo zatiko .....14,00 €
- 7.- Tonbolak, zozketak, salmenta arinak eta antzekoak:  
Metro karratu edo zatiko eta hilabeteko edo zatiko .....23,15 €
- 8.- Ziboak, tresna hegalariak, kalesatxoak, zaldiko-maldikoak, bunperrak eta, oro har, mugitzen diren era guztietako tramankuluak:  
Metro karratu edo zatiko eta hilabeteko edo zatiko .....9,15 €
- 9.- Auto-txoke pistak:  
Metro karratu edo zatiko eta hilabeteko edo zatiko .....4,70 €
- 10.- Ikuskizunak eta antzerkiak:  
Metro karratu edo zatiko eta hilabeteko edo zatiko .....6,90 €
- 11.- Zirkoa:  
Metro karratu edo zatiko eta hilabeteko edo zatiko .....3,00 €

#### II – KAMIOI-DENDETAN ETA EZARPEN FINKOKO KALEKO SALTOKI DESMUNTAGARRIETAN EGITEN DEN SALMENTA, UDAL ORDENANTZETAN EZARRITAKOAREN ARABERA BAIMENDUTAKOA DENEAN.



Aplikagarri izango dira aurreko atalean ezarritako tarifak, baina %50eko murriztapena izango dute urte-saso bateko postuak direnean, feria edo jai nagusiak ez direnean eta instalazioak jai gunetik kanpo jartzen dituztenean.

### III – ALTZAGAKO ETA ASTRABUDUKO ASTEROKO KALE MERKATUAK

Asteroko kale merkatuko lurzoria erabiltzen den eguneko eta metro edo zati bakoitzeko .....  
.....3,30 €